



1877

e/22




Euskal Biblioteka Labayru



1012788  
LITERATURA / N. 2670

**UTOPIAREN FANTASIAN**



MIKEL ZARATE

# UTOPIAREN FANTASIAN

1979 - Uztaila  
UTOPIAREN FANTASIAN  
Mikel Zarate  
© L. Haranburu editorea  
KRISLU  
Alda. C. Sotelo. 28  
DONOSTIA  
Imprimatzen du  
E. Itxaropena, S. A.  
Bitor Pradera, 2 - Zarautz  
D. L. S. S. 214/79  
I. S. B. N. 84-7407-069-6

KRISLU

## UTOPIA BAT

Liburu hau inprimategian zegoelarik, Mikel Zarateren heriotzaren berri zabaldu da Euskal Herriaren zehar.

Azkeneko, Txillardegik Donostiako Igeldoan bere nobela presentatu zuen egunez ikusi ginen elkar. Ez ginen oso lagunak, oso kontatuak dira elkar ikusiriko paradak, baina azken ikustaldian, idazle multzo abigarratu hartan denekin zuen hitzegin beharra, denei zien zerbait adierazi beharra; presa zuen Mikelek, agian bere sortearen susmoa zuen. Baserrian, bere jaiotetxean, erretiraturik zegoela esan zidan —*stress* delakoa edo bizitza murrizt honen dardarizoa— eta lau eskueskribu argitaratu gabeak zituela, lau.

Handik hiru egunetara artu nuen “Utopiaren...” eskueskribua.

Atari gisa bere liburuari hitz bi jartzeko eskatu zidan. Prologoak eta gainerako ataka gaiztoko

ihardun zaratatsuegiak alboratzeko promesa egina nuen nik, bide zihorregi batetan beingoz eta halako batek ostikatu ninuen eskeroz, baina Igeldo-ko arratsalde hartako gonbersazioaren gogorazioa datorkit honat, zor dizkiot hitz bi.

Utopiaz, ihardun genuen beste solasen artean eta bere liburuaren tankeraz galdetzerakoan geure arteko Utopiazalerik, nonbratuena aipatu nion.

—“Ze arraio! Hi ere Monzonen bideetan habiatu haiz!”

—“Nik ez diat utopia konkreto batetaz idazten. Euskal Herriak utopiaz duen beharretaz baino”.

Eta Mikel Zaretek, eta Monzonek —biak beren erara— arrazoi balute? politikaren arlo mendekaitza utziaz gero, ikusmirara dedikatua naiz, eta handik honera ibilia naiz mitinetik-mitinerara, eta Anoetako kantoiean hala entzun nion Monzoni honoko esaera hausart hau: “Euskadi, utopiaren lurra da, utopiaren seme gara gu!”.

Bueno, eta finean zer da, historiaren habiada? utopiaren egarria baino. Eta hogeitamar urterekin, zenbait Utopia gisa mihazkatu ondoren eszeptizismoren udaizkena iastatzen hasia naizen neronek, Mikel Zaretek adierazten zidan kezka kilimatzen hasia nau berriro —berriro diot, zeren kristotik Lenninera honoko honek ugariak izan ditu, utopiazko premiak—.

Kintanak *Behin batean* izeneko desutopia bat idatzi zuen. Amets gaiztoa zen hura, burlaz hartu zuen zenbaitek, asarre bizienaz gehienek, baina hura ere amets bat zen, amets gaizto eta gogangarria bat. Geroz Euskal letretan ez du beste inork Utopiaren bidea ibili eta orain —postumoki esan behar—. Zarate datorrigu utopiaren haizeaz oreata.

—“Berrogei urte eta gero hau!”. Postura bat da, eta nahiko fatalista dena esateko. “Berrogei urte eta orain ZER!” galdetu beharrean konstatazio triste batetan pausatzen da zenbait euskaldun. Beste zenbait berriz, utopiazale aitortzen da. Autapen bat da; arrixkutsua baina iraultzailea oso —oraindik iraultzaz diardugu... —Iraultza utopiaren atzaparraren puntan dago.

Razionalistatzat geure burua jotzen dugunok —presuntzio bat, beste edozein bezain errespeta-garria— ametsaren lur dudagarria kezkatu ohinkadatu izan ohi dugu, baina ausarta behar da izan arrazoi hau ere historikoa, eta beraz ilusio bat dela jabetzeko.

Milaka urte iraun duen Euskal Herri honek, zer nahi dela espero behar badu, ametsaren eskutik espero beharko du. Herri xipi bat gara, zapaldua. Erroak agirian ditugu; sustraiak intenperie latzanean, baina geure herriak badu arnas bat sakonetik, premiatik, iraun guratik datorkiona, eta

arnas horren kategoriak ez dira agian arrazoina-  
mentu otzarenak, bihotzkada ikaratuarenak baizik.  
Etorkizunarekiko hauzia, amets eta utopia bilaka-  
tzen ditugu, edo eta arrazoinik ez digute emanen,  
ez dugu ukanen. Mugak jarri behar dizkiogu Eus-  
kal Herriari, utopiaren muga ausartak. Boronda-  
tearen desmugak.

Agian, Monzonek du historiaren zentzua.  
Agian.

Honela atxeman dut M. Zarateren utopiaren  
haizea Donostian, mila bederatzireun eta hiroro-  
geitahemeretzi garren urteko **ABERRI EGU-  
NEAN.**

Luis Haranburu-Altuna.

## UTOPIAREN FANTASIAN

Zure  
nire  
gure  
iraun  
gogo  
hilezkor  
zapaldu  
hertsi  
itoaren  
garraisia  
idazten  
duzu  
dut  
dugu  
barrezka  
negarrez

eten  
gabeko  
hitz  
jario  
zoli  
mailukari  
dardartien  
luzadura  
luzez  
iraun  
gogoaren  
iraun  
gogoa  
iraultza  
guztien  
sutegi  
duzun  
dudan  
dugun  
utopiaren  
fantasian  
etsipen  
odolduaren  
zorabiozko  
tristura  
larriaren

amets  
ero  
fenixtuen  
bozkario  
mozkortuan  
ezinaren  
eginaren  
egoeran  
luzatuz  
luzatuz  
luzatuz  
mendez  
mendezko  
eskubide  
zapalduen  
sustraien  
indarraren  
bultzadaz  
utopiaren  
fantasia  
koloretsu  
dantzarian  
lilurazko  
ikuskitun  
bilakatu  
zaizun



zaidan  
zaigun  
zure  
nire  
gure  
lehengo  
oraingo  
geroko  
zure  
nire  
gure  
itsasozko  
mendizko  
leku  
ezlekutua  
lekutasun  
oso  
bete  
sendoz  
behin  
betiko  
zure  
nire  
gure  
lekuan  
lekutu

dadin  
zure  
nire  
gure  
gutasunaren  
betikotasunez.

## UTOPIAREN ERAGINA

Guk ez genekien kakoa zer zen. Kakorik zegoenik ere ez.

Behean, zemento gainean uzten genituen, tolesturik, gure kaiku gorri, berde ta zuriak.

Bide bidean, jendearen hankapetan uzten genituen.

Sorki zaharrak bezala zapaltzen zituen jendeak. Eta izurrez bete. Eta lohi lohi egin.

Egun batean, kako bat margoztu zuen norbaitek orma zuri zuri batean. Gero kaiku bat kakoan zintzilik.

Behetik jaso, ta gure kaikuak jarri genituen, orduan, orman pintaturiko kaikuaren gainean. Baina berehalaxe erori ziren zemento gainera.

«Jakina: kako marraztuetan kaiku marraztuak bakarrik eskegi daitezke», pentsatu nuen.

«Noski! Egin ditzagun kako horren antzeko harritzko, oholezko ta burdinazko kakoak!», pentsatu zuten nire lagunek.

Kako asko egin genuen ta pozez geunden. Puskatu egin zizkiguten ta tristuraz geunden. Egin ta desegin, harriaro, burdinaro, zementoaro..., kakoa zer den ba dakigu orain. Ta berriak egiten ari gara gure kaikuak eskegiteko.

## 1979: HAURRAREN URTEA

Magnetofoi berritsuz inguraturik dago haurra zementozko kaiolan, zeluloidezko eguzkia, itsasoa, loreak, abereak, txoriak... ikusten. Plastikozko andrakila bat du besartean. Txikle ahoan.

Gurasoen, maisuen, apaizen, medikuen, alkateen, kapatazen, katedratikoen, diputatuen, gobernadoreen, gotzainen, ministroen, lehendakarien bakarrizketa klitxetuaren trumoi hotsa entzuten du egunero, gauero, etxean, eskolan, elizan, kalean, haurtzaindegian.

Txorien alaitasunez abestu nahi du haurrak. Abereak bezala jauzika ibili. Loreen usain eta koloreen lilura sentitu, eguzkiaren argitasun distiratsuan, itsaso urdin dantzariaren kulun-

kan, haizearen igurtzien askatasunean... Baina ezin.

Haurtzaindegiko neskato txiro itsusi totelak irribarre gozoa egin dio bihotzaren negarretan.

Haur gizajoa! Haur laztana! Tximino drogatua! Robotño kuttuna!

## GABONETAKO FANTASIA

- 1) Musika leun bat entzuten da. Errepikaren doinua har daiteke horretarako.
- 2) Musika entzuten den bitartean, poetaren ahotsa entzuten da: *«Mozkorraren zora-biozko kaiolan dago poeta. Koktel desgizatu bat edanarazi diote Gabon jaietako zorion agurren lelo etengabez: hauts, ke, gas, pol-bora ta odolezko koktela.*  
*Bi malko distiratsu ditu kantari begietan. Malkoen kolore dantzan Gabonetako fantasia bat. Fantasia mingotsean bozkariozko itxaropenaren guraria, bakezko askatasunaren ametsa.*
- 3) Musikaren hegadan, kantatzen hasten da poeta:

- a) *Ilunaren tristura  
txabola hotzean,  
bakardade mindura  
haurrak bihotzean.  
Bakarrik haur larria...,  
ondora sagua,  
sagua ta erbia,  
txakur ta katua.*

*«Neguko ilunetan  
kale ta baserri,  
haur baten negarretan  
dator Eguberri.  
Aberreen pozetan  
haurra irribarrez,  
maitasun ametsetan  
poeta negarrez.»*

- b) *Katuak buztan leunex  
du haurra laztantzen,  
begi argitasunez  
iluna uxatzen.  
Txakurrak musuen suz  
berotzen du haurra,  
hortz zorrotzez uxatuz  
gauaren beldurra.*

*«Neguko ilunetan  
kale ta baserri,  
haur baten negarretan  
dator Eguberri.  
Aberreen pozetan  
haurra irribarrez,  
maitasun ametsetan  
poeta negarrez.»*

- d) *Irrintzi gozo alaiz  
sagua kantari,  
kantuz sikatu nabiz  
negarra haurrari.  
Erbiak dantzaz dio  
ematen adore,  
haurraren bozkario  
itxaropen lore.*

*«Neguko ilunetan  
kale ta baserri,  
haur baten negarretan  
dator Eguberri.  
Aberreen pozetan  
haurra irribarrez,  
maitasun ametsetan  
poeta negarrez.»*

- 4) Berriz ere, hasierako musika leuna entzuten da. Eta zorion agurrak musikaren barnean: «Zorionak!», «Eguberri zoriontsuak!», «Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean gogo oneko gizonei!», «Urte berri on!». Esatera berdintsuak hiru-lau hizkuntzatan oihukatuz ere buka daiteke Gabonetako fantasia hau.

«UMEEN ZENTZUNA...»

*(Nire utopiako euskal telebistan ikusiriko komedia barregarri ta negargarria)*

Bilboko edozein kale bazterretan.

Kotxeak, autobusak, trolebusak, mikrobusak ba doaz, ba datoz, gelditu gabe. Jendea ba doa, ba dator, gelditu gabe.

Gelditu egin da, denda baten aurrean, mutiko batekin doan andre bat. Dendako luna ederrean «¡Viva 1979! Zorionak!», irakur daiteke.

Kotxe bat ere gelditu egin da andrearen eta mutikoaren ondoan. Kantu bat entzuten da kotxe barruan.

*Umeen zentzuna  
etxean,  
kalean  
entzuna.*

*Elkarrizketaren  
poz eta hasarre  
barrearen negar  
negarraren barre.*

A1: Aitortxo! Zer? min egiten al dizue orain ere oinetakoak?

a1: Bai.

A1: Non egiten dizue, ba, min?

a1: Hemen.

A1: Atzeko aldean?

a1: ¡Ay, que me haces daño!

A1: Ondo estutu gabe duzu ta..., jakina, tirrin tarran, min egin behar. Zaude geldi! Kor-del mengelok... Lehen erosi duzun tebeoa non utzi duzu, ba? Galdu?

a1: Dut hemen.

A1: Ez galdu gero! Ea orain minik egiten dizuen. Orain ez, ezta?

a1: Ez.

A1: Hale! Goazen!

a1: Amatxo!

A1: Zer?

a1: Nahi dut ura.

A1: Ura nahi duzu orain ere? Oraintxe puntuan ez duzu edan ala? Beti ura edaten egon

beharra! Txizalarria ere etorriko zaizu laster. Itxaron! Gero edango duzu etxean. Hortxe, hor goiko dendan, Olatzentzat jantzi berritxo bat erosi ta behingoan joango gara etxera...

a1: Jo! Gero ez. Nahi dut ura orain.

A1: Neuk ere bai. Eta zera ere bai. Zer us-te duzu, ba? Bilbon bazter guztietan daudela iturriak? Ta ez gara tabernara joango ur eske!

a1: Jo...!

A1: Ene! Begira, Aitortxo! Begira nor dato-rran han: osaba Julen... Eta izeko Garbiñe ta Estitxu zure lehengusina ere ba datoz Julen-kin. Nora ote doaz? Julen!! Julen!!! Eeee! Buenos días, trío! Creí que nos habíais vuelto sor-dos...

B1: Es que con tanto ruido, chica...

A1: ¿Qué tal estáis? Tanto tiempo sin ve-ros...

B2: ¡Eduarne ¿Cómo estás?

A1: Bien, gracias a Dios. Zer, Aitortxo? Musutxo bat ere ez izeko Garbiñeri?

B1: Kaixo, Aitortxo! Ea musutxo bat. Mu-til handia hazi zara gero! Nolako mutikotzarra dagoen...

A1: Bai, ia aitaren bestekoa da. Estitxori ere eman musu bat, eta osaba Juleni ere bai.

B1: Ta zuk zer, Estitxu? Eman zuk ere musu bat izeko Garbiñeri.

A1: Pero ¡qué chicarrona se ha hecho ésta! ¿Cuántos años tiene ya?

B1: Los años pasan volando, chica. Va a hacer siete el mes que viene. Pero ¿qué me cuentas? ¿Qué tal las vacaciones? Lo habréis pasado bomba en Zarauz, ¿no? Estitxu! Nora zoaz hortik? Kontuz kotxeekin! Etorri hona!

B2: Zer esan dizu amak, Estitxu?

b1: Ya voy.

A1: Zu ere, Aitortxo, geldi hemen e! Pues..., sí. Hemos pasado muy bien las vacaciones. La pequeña, Ikerne, estuvo un poco malucha durante dos o tres días. Pero, gracias a Dios, no fue nada. Y ¿vosotros? Me dijeron que no volvíais hasta la semana que viene. No sé quién me lo dijo.

B1: Sí. Normalmente solemos venir a finales de setiembre. Pero nos avisaron anoche que Kepa estaba en el hospital con la cabeza rota y...

A1: ¿Kepa...? ¿Qué Kepa?

B2: Sí, mujer. El del piso de enfrente. No te acuerdas aquel que, estando tú un día en nuestra casa, vino a preguntarme...

B1: Le tienes que conocer a la fuerza. Uno alto...

A1: ¡Ah! Ya caigo. Ya sé, ya sé quién es. Pero oye, espera... Ese Kepa ¿no es uno que tiene entradas, con bigote, muy guapo él...

B2: Claro que sí. El mismo.

A1: Pero ¿cómo es posible eso?

B1: No te entiendo, chica. Posible ¿qué?

A1: Pues ya sabéis que anteaayer se casó, por fin, mi amiga, la de la oficina.

B1: ¿Cati?

B2: Se casó ¿eh? Ya era hora.

A1: Sí. Después de haber andado tantos años con ese... Aitortxo! Nora zoaz? Zer nahi duzu? Karamelo bat?

a1: Ez da esaten *karamelo*. Esaten da *gozoki*.

A1: Oraintxe erosiko dizut... Pues como te iba diciendo, se casó por fin. Y después de la boda nos fuimos a la sala de fiestas Dantzaleku y allí le vi precisamente a ese Kepa, que, por cierto, estuvo bailando todo el tiempo con una rubia imponente. Allí le vi, sí.

B1: Lo que pasó fue que también le vio su mujer, y con un jarrón chino que había en la sala...



A1: Ya, ya. Claro. Pobre Kepa.

B2: Además... Baina zer dela ta zaude negarrez orain, Estitxu? E?

b1: Me ha pegado Aitortxo.

B1: Euskaraz, Estitxu!

b1: Jo dit Aitortxo niri.

A1: Aitortxok jo zaitu? Aitor! Hona arin! Ez duzu entzun ala? Zergatik jo duzu zure lehengusina, oker horrek? Beti jendea jotzen baino besterik ez al dakizu zuk?

a1: Me ha querido quitar el tebeo.

b1: Es mentira. Yo no te he querido quitar el tebeo.

a1: ¡Sí me has querido quitar!

A1: Ta jo egin behar izan duzu?

B2: ¡Hale! Ez negarrik egin, Estitxu.

A1: Ez zaitetz hain bihurria izan, Aitortxo, ta utzi tebeoa orain Estitxuri. Zuk nahiko denborarik izango duzu gero etxean hori ikusteko. Eman Estitxuri.

a1: Quiero ver ahora.

A1: Zer?

a1: Nahi dut ni irakurri.

A1: Gero irakurriko duzu. Ekarri hoan! Hartu, Estitxu. Gero Aitortxori emango diozu berriro ezta?

b1: Bai.

A1: ¡Jesús! ¡Qué críos! No te dejan ni hablar.

B1: Ya sabes, Edurne, lo que son los críos. A ésta no le faltan tebeos en casa, pero... No sé ni cuántos tiene. Irakurri, bai, baina ez apurtu tebeoa gero, Estitxu? Entzun duzu?

b1: Ez dut apurtuko, ta emango dut gero Aitortxori.

A1: Aitortxo! Belarriondoko bat ematen badizut eman, ikusiko duzu. Lehenengo Estitxu negarrez ipini ta orain zeu ere negarrez ezta? Mizkatu hori...

B2: No le pegues, ¡por Dios!, al crío.

B1: Déjale, Edurne.

A1: Es que me saca de quicio. Ya verá cómo va a espabilar dentro de poco, cuando vaya a la ikastola.

B1: Sí. Esta también tendrá que espabilar. Las andereños no serán como nosotras. Allí tendrán que andar más formales.

B2: Ya lo creo que sí.

A1: Yo creo que para éstos las vacaciones... Aitortxo! Isilduko zara, mesedez! Zer da hau gero! Kale erdian arrantzaka... Aitatxok ez duzu gitarrarik erosiko.

*a1:* Yo no quiero pegar la guitarra.

*A1:* Baina guztiz maketotu zara ala?

*a1:* Ni ez dut nahi ikutu gitarra.

*B1:* Ez egin negarrik, Aitortxo, zu mutil handia zara ta. Beste tebeo bat erosiko dizut oraintxe.

*a1:* Ni nahi dut Estitxurena... Da hori neu-rea. Erosi amatxok niri...

*B1:* Vamos a comprarle otro tebeo a Estitxu, Julen.

*A1:* No hacemos carrera con éstos. ¡Qué pareja!

*B1:* ¿Cuándo comienzan las clases?

*A1:* Me parece que el día quince.

*B1:* Aitortxo habla muy bien el euskara, ¿verdad?

*A1:* Sí. El euskara de ahora es mucho más puro y más bonito que el nuestro.

*B1:* Claro, como ahora aprenden en las ikastolas...

## TELEBISTA ARROTZA PUSKATZEN

Ur berdín ezberdinaren  
lamia kantu lotiaren kulunkan  
su berdín ezberdinaren  
sorgin dantza xarmanta  
gau berdín ezberdinaren  
basajaun altzo zabalean...,  
berrogei neska,  
hogetamar mutil  
kanta kantari,  
kontu kontari,  
dantza dantzari  
landa apatzaren  
ihintz hozkirrian  
betiko telebista  
berdín ezberdina ikusten,  
gure telebista sortzen,  
telebista arrotza puskatzen,  
telebista arrotza puskatzen,  
telebista arrotza puskatzen...

## ZEMENTO TA BURDINA ARTEAN LORE BAT IRRIBARREZ

Haserre bizitan egongo da Andoni batzarrerera joan ez naizelako. Goiak eta beheak joko ditu. Ziur. Baina zer egingo diot, ba? Ordu bete baino gehiago daramat hemen bueltaka apartamentu bila, ta alperrik! Azkenengo batzarrerera ere ez nintzen joan. Aurretik zerbait prestatzeko lehentxoago joan nahi izan dut gaur gainera. Oraingo hasiko ziren... Hau da ezinaren ezina! Joan ba noa, ibili ba nabil, baina ez dakit nora noan joan eta zertarako nabilen ibili. Kotxea kotxearen gainean kale guztietan, apartamentuak ahorraino beterik... Ea hortxe dagoen lekutxoren bat... Kaka! Andoni bera ikusi nahi nuke nik hemen, Andoni bera! Epe! Kontuz, txo! Inor jo barik! Zeure bidetik eta zuzen! Jo egiten nau horrek apur bategatik.

Neu zuhur egon ez banintz, astakirten horrek... Ez batak ez besteak ez genuen min handirik egingo egin. Baina nahastea bai gero, horixe bai. Pentsatuz ere dardar jartzen naiz. Bai, hara ta hona, seguroa dela ta ez dela... Zu, parkatu..., zer pasatzen da gaur, ba...? Bartzelonaren kontra? A, Madrilen kontra, horixe bai, hainbeste kotxe bestela... Zorioneko futbol! Bai, joan naiz hara ere, baina ez dago lekurik. Zuontzat ere kaltegarri izango da, baina zuok taxistok ez duzue aparkamendurik behar. Agur, bai. Et! Kamioitzar hau nora doa baina orain? Sakatu, sakatu gehiago! Bota kea! Egin burrunbotsa! Kutsadura egongo ez da, ba! Hainbeste kotxe ta kamioi, ta trolebus, ta autobus, ta mikrobus arrapaladan... Ene! Maite ta Mikel doaz hor. Epa! Maite! ¡Mikel! Agur, tokaio! Ez dira konaturatu. Ni baino hobeto doaz oinez. Partidura al doaz...? Zigarroak ere ia amaitu zaizkit. Gasolina ere bai laster. Baina zer pasatzen da orain guztiok gelditzeko kalearen erdian? Istripuren bat? Agur, Kontxi! Hementxe, ba. Geldi egon behar. Nonbaiten aparkatu nahirik nabil baina..., ezina ba dakizu zer den? Ekina okerra, baina ezina okerrago. Bai? Egongo dela han uste duzu? Berehalaxe joango naiz, inondik ahal

badut behinik behin. Hasi dira martxan, bai. Ba goaz aurrerantz. Agur, Kontxi! Zeure partez. Zure aita eta ama ere ondo, ez? Tira, ba! Ikusi arte! Orain udaberri inguruan gazteago ta ederrago ematen dute neskek. Kontzik bai behintzat. Irribarre ere samurkiago egiten dizute... Ea, ba, atzera edo aurrera, andretxo edo neska-zahartxo, kalearen erditik txakurtxo lumazto horrekin zoazelarik mutilzahartxo honen kotearen azpian kromotu ez zaitezten. Semaforoak kaltegarri baino ez dira batzutan. Aurre-rabidea delakotan, atzerabidea. Ai, Mikel, Mikel, gizajo hori, zer zela ta hasi ote hintzen hi txofertzan? Gizona gizajo bat duk, baina hi orain gizajo t'erdi... Noiz zabaldu ote dute den-da hori hemen? Lehen bar bat zegoen hor. *Arnariak* jarri diote izena. Zer esan nahi ote du? *Arnariak*... Ea irratiak zer dion: «...zuekin, ba, orain Zirimiri Iratzarri nahi nuke abesten.

*Uda bihotzeko eguzki bero,  
zemento grisezko bloke zapalkor,  
gas pozoitsuaren ke laino mozkor,  
sorgin haizearen baults dantza ero,  
motor durrunda..., ta zu egunero  
infernua gris hortan, egunero hor,*

*arima grisdun lur pusketa lehor,  
zure jaunen robot, baloi, numero...»*

Hementxe egongo da lekuren bat aparkatze-ko... Egon da. Ni baino bizkorragoa izan da hori. Bi behatz gurutzatu ta aparkalekua behingoan topatzen dela esaten dute espiritistek. Ez zait ezer kostatzen aproba hori egitea. Oraintxe dut erarik onena hori egia den ala ez ikusteko. Honela, batera ta bestera gasolina gastatzen ibiltzekotan, etxera joatea da egokiena, ta kito. Merke dago egon ere gasolina ta! Ipurdiko mina eginda ere ba nago.

*«Iratzarri nabi nuke barnean  
lotan daramazun gizon poeta,  
gizon aitzindari eta profeta,  
izankizunaren ezerezean  
zuregan dagoen gizon euskaldun,  
iratzarri zeu ta zeure zeutasun.*

Eta orain, berriz ere, irrati entzuleok, fulboleko partidua nola...» Kotxea saldu ta ba-kea! Zorabiatu rik nagoela dirudi. Espiristek esan gauza asko esaten dituzte, baina..., noan etxera... E!! Zu!! Kontuz, gizon!! Ez al duzu ezer ikusten, babalasto horrek? Zu...!! Ai!

Ene! Oraintxe bai egin dut egitekoa. Hauxe baino besterik ez zait falta izan. Aparkatuko duk, bai, oraingoan, Mikel! Kalearen erdi erdian aparkatu ere. Baina zeri begira egon da kokolo hori, ba? Kalearen erditik joan ez balitz, ez nuen joko. Bera etorri da txarto, bera sartu da burpil artera. Hil egin ote dut? Ai ene bada ta ni! Hau da mundua. Jendea garrasika ari da. Ito egingo naute, jan... Barka iezadazue, baina ikusi duzue guztiok zer gertatu den. Errua nik zergatik? Frenatu dut. Baietz, ba! Ez dut uste errurik izan dudarik. Bai, ez dizut ukatzen txofer ona izango zara, baina nire lekuan egon bazina, zu ere... Berau sartu zait burpilpetara, gizajo hau... Mediku bat, bai. Hilda ez dago ezta? Konorterik gabe? Nor da izan, ba? *Katu...*? A, ezizen bat. Mozkortia edo ez mozkortia, berdin da. Zer egingo nuen, ba? Ta zeuk, zeuk zer egingo zenuen honelako kasu batean? Neure bidetik joan naiz ni... Medikua zara? Eraman dezagun, bai, horra albora, hemen kalearen erdian gaizki baitago. Bozina hotsak ere ez du azkenik izango osterantzean. Hartu ez du golpe handirik hartu. Ez. Hau da jendetza bildu dena gure inguruan! Arnasarik hartzen ere ez diote utziko *Katu* edo dena delako honi. Plastada ba-

tzuk ematen dizkio medikuak masailetan. Amoniako? Amoniako nork hemen? Alkohola edo paitarra edo horrelako zerbait ere berdina dela dio medikuak. Koinaka dut nik botila bat ko-txean. Etxean gelditu banintz, ez zitzaidan honelakorik gertatuko. Orain ez batzarrerik, ez..., ta gainera istripu hau dela ta etorriko zitzazkidan buruhaustea. Zuri zuri eginda dago Katu. Ba al du inork basorik? Plastikozkoa? Berdin dela dio medikuak. Koinaka hara bota ta medikuari ematen diot. Sudurpean jartzen dio Katu-ri. Ni izan naizela zapaltzailea jakitean, geroago ta garrasi handiagoak egiten dizkit jendeak... Astiro astiro begiak ireki ditu Katuk. Bueno! Ez dut uste gauza handirik izan denik. Konortera dela dirudi. Bere sudurpean duen basotxo-ari eusten dagoen madikuari begi eskalez begi-ratu ta ba diotso: «Beheratxoago, mesedez!».

## HIRI BERRIKO UTOPIA GARRATZEZ

maitemaiteizandutnirehiria  
etanirehirikobizitzaberria  
bainamineznaukatrikuarriak  
trikuarritzarberriitsusiak  
hirikodolmenarenkuadratura  
nirebegitagogoarenkexadura  
hutsunegabekohirikodolmena  
gogoarenkexadurarenitomena  
hirikodolmenitsudesgizatua

gorputzbizidunrobotenlekua  
maitemaiteizandutnirehiria  
etanirehirikobizitzaberria  
bainamineznaukatrikuarriak  
trikuarritzarberriitsusiak

## DEITUREN UTOPIAREN MINDURAN

*Adelmo Torrijos Castaños eta Socorro Martinez Triana-ri. Zuoi, euskal idazle jator ta nire adiskide kuttun zareten senar-emazte abertzaleoi, zuoi eskaintzen dizuet barregarrikeria mingarri hau, zuoi, paradoxaren barneko bultzadaz eta zuen errealitate emankor eta pozgarriaren oroitzapenez, euskal deituren barrokaria hutsezko ameskerietan bizi direnei Ignacio Zarzalejos Cordero euskalduna Aitor Gericacchevarria Gabicagogeascoa erdalduna baino gogokoago dudala behin eta berriz Euskal Herriaren onerako ta iraupenerako aitortuz.*

Gaua zen. Udaberriko gaua. Itzaropenezko gau ilun baketsua. Eta gauaro ta lotaro ona isiltasunean.

Bilbo lotan zegoen ilunaren eta isiltasunaren altzo mazalean.

Hareatza aldetik sartzen zen haize epel eta gozoak laztandu egiten zituen, noizean behin, Ikurrina kaleko argi zuri, gorri ta berde banakak, eta irribarrezko balet liluragarri bat egiten zuten argiok laztanaren ezti ta bozkariotan.

Ignacio Zarzales-en etxebizitzako egongelaren aurreko aldean zeuden hiru argik ispilutu egiten zuten haren leihoa ta dantza koloretsuz apaindu.

Egongelan zegoen Ignacio. Ta, Bilboren antzera, lotan zegoen butaka apatz baten erdian erdi etzanda, berrogei ta hamabost urteren eta larogei ta bederatzi kiloren astuntasuna arindu nahirik edo. Gainera, Aberasturi Anaiak lantegiko bulegoan egun guztian lan egin ondoren, oso nekaturik aurkitzen zen.

Lotan eta zurrungaka, bere emaztearen ondoan eta telebistaren aurrean zegoen. Telebistaren goienean ikusten zen gaztetako Ignaciok barre egiten zion argazkitik etengabe. Telebistako lokutoreak ere zerbait esaten zion, baina ez zion jaramonik egiten Ignaciok. Lotan zegoen eta sudur luzangaren puntan noiz eroriko

zituen betaurreko beltzisketan ere telebistako pantaila bi ikusten ziren dixdixka.

Ametsetan ari zen. Landa bateko sasiarte baten ondoan beeka zebilen bildots eder saltokari polit bat harrapatzen. Baina, halakoren batean, zazpi hortz luzedun otso ilezto bat agertu zaio ondoan, otso beltz ikaragarri bat, ta beldurtu egin da, ta dardarka hasi, ta laprast egin..., ta betaurrekoek ere laprast egin zuten ta paparretik behera izter artetik alfonbra gainera erori ziren, ta itzartu egin zen berehalaxe Ignacio.

—Ba zara, gero, zu ere bat! Egunen batean puskatu egingo dituzu, ta betaurrekorik gabe ibili beharko duzu orduan —emazteak erdi haserrez.

—Puskatu otsoa..., laprast..., puskatu zer?  
—Ignaciok, erdi lotan oraindik.

—Zer otso ta otso ondoko! Betaurrekoak puskatu, betaurrekoak. Lo zaude oraindik, kokolo handi hori ta.

—Egunen batean puskatuko dira, bai, ziur. Baina oraingoz osorik daude. Ikusten dituzu?  
—ironia pizka batez, betaurrekoak behetik gorra jaso ta berriro ere sudur gainean ipintzen zituen bitartean.



—Hor lotan egon gabe ohera ezin zara joan, ohera, eta han lasai lo egin! Entzun duzu?  
—zutitu ta eskuetan izan zuen aldizkaria telebistaren gainean uzten zuen bitartean.

—Nekane ta Koldo joan dira ala?

—Jesus! Ordu erdi ere ba da joan direla. Garbiñe joan ta lasterrera joan dira. Barrezka egon zaizkizu zure zurrungak entzuten.

—Inori barre egiteko beti prest...? Basotxo bete esne epel gustora edango nuke, ba, Miren!

—Neuk ere bai, azukre pizkatxo batekin.

—Ta on egingo lidake, gainera.

—Neuri ere bai.

—Baina zergatik dago haserre, ba, gaur, gure etxeko erregina bizkor eta liraina, nire potxolatxoa, nire... —ezkerreko masailan samurkiro musu bat eman ez bere emazteari.

—Zaude isilik eta geldi pizka batean, txotxolo hori! Geldi egoteko esan dizut... Ai! Min egiten didazula, gizona! Zoratu egin zara ala?

—Oi, udako, udazkeneko, neguko ta udaberriko poxpolin kantari ta dantzaria!

—Amona izateko laster eta, sasoi oneko lore...

—Zer esan du telebistak?

—Zer esango du, ba? Betikoa: gezurra ugari. Datorren hiletik hasita merkatu egingo direla gasolina ta orioa. Datorren astean hasiko direla Bilboko kutsadura zerk sortzen duen aztertzen. Beste hogei urte barru euskaldun izango direla bilbotar guztiak. Emakumeen zereginik behinenak amatza, emetza, mojatza ta neskame-tza izan direla orain arte; baina orain...

—Ez al du ezer esan izen-abizenen aldaketari buruz?

—Ez. Baietz esan duzu zuk, baina...

—Oraindik esango du.

—Ez dakit, ba.

—Ikusiko duzu.

—Hamaikak jota daude. Eta...

—*Azkenengo berriak* falta da oraindik. Gaur iragarriko dutela esan dit Josebak, eta honelako gauzak ondo ere ondo jakiten ditu.

—Jakin jakingo ditu baina..., ez dugu horrelakorik entzungo. Zurrumurru asko dabil aspaldion. Zurrumurrua ugari, baina egia gutxi. Aldaketarik ere ezetz egon azkenean! Ikusiko duzu. Ignacio Zarzales Cordero izango zara zu beti, zoritxarrez. Eta ni Miren Prado Artetxe. Eta gure seme-alabak Koldo Zarzales Prado, Nekane Zarzales Prado...

—Ixi! Oraintxe...

—«... lehendik iragarririk genuenez, teleikusleok, bihartik hasita izen-abizenak aldatzeko eskubide ta era izango duzue nahi duzuenok. Hainbeste denboratan amets liluragarri huts bat izan dena egia biribil bihurtu da. Lehenago egin beharreko gauza izan da. Baina izen eta abizen zerrenda egokiak egiten denbora asko igaro da, ta horrexegatik izan da atzerakuntza hau. Aldaketak Arana kalean, 31n, Arana kalean, 31n, eta Agirre kalean lean, Agirre kalean, lean, egingo dira. Identitateko karnetak eta familiako liburuak eraman behar dira; besterik ez. Zorionak, ba, ta ongi etorriak euskal izendegi ta abizendegi ederretara sustrai berrien bila datozten guztiak! Bihar, goizeko hamarretan helduko da gure hirira Monakoko enbajadora berria...»

—Entzun duzu, Miren?

—Bai. Egia da.

—Sinestu ere ezin dut.

—Hau da poza daukadana!

—Gora Euskadi! Aupa, Miren, bihotza! Udaberriko nire tximeleta, udako nire txanxangorria, udazkeneko nire lilia, neguko...

—...nire atso zaharra.

—Gora gu ta gutarrak, emeak eta arrak! Bota bostekoa! Eman besarkada bat, musu bat...

—Iratzartu egingo dituzu umeak, gizona!

—Umeak? Nongo umeak?

—Geureak.

—Soldadutza ere eginda dauden umeak? Zure betiko umeak, haurrak, txikitxoak, mutikotxo ta neskatotxoak? «Aita San Migel, Igorretako, zeru altuko loria...»

—Goikoak eta behekoak ere iratzartu egingo dituzu zuk, zoro horrek!

—Ta zer? Aufa!!! «Geurea da ta, geurea da...» Atera ezazu txanpana!

—Bai, zeretik aterako dut, ez dagoen lekutik!

—Txanpanik ez badago... patxarana. Atera...! «Geurea da ta, geurea...». Fresnedori deitzera noa. Itzali telebista! Lau, hiru, bi, bat..., zazpi, bat eta lau. Lo egongo da, beharbada. Berandu ere ba da ta. Berdin da. Itzartu egingo dut... Itzarrrik dago... Nor da? Fresnedo? A, Julen zara? Aita hor al dago? Bai, telefonoan jartzeko esan, mesedez. Eskerrik asko. Aupa, Jabi! Ondo...? Gu ere bai... Ba dakizu? Zorionak! Gu ere sinestu ezinik egongo gara.

Zer? Bai, bai. Ni neu, behintzat, bihar goizean. Lehenengo orduan. *Lizardi?* Ez dakit, ba. *Lizarraga* ere... Ez, ez. Ederki! Zorionak berriz ere Fresnedo! Barka iezadazu: *Lizardi*. Zorionak, *Lizardi!* Bai, ohitura kontua... Zuri ere berdin, eta emazteari. Bai, bai. Gabon, *Jabi!* Ondo lo egin, ahal baduzu... Ez dut uste, ez, lo handirik egingo dudarik... Agur, bai, agur. Gabon!

—oOo—

Hego haize epelaren eraginez, Bilboko kutsadurak alde egin zuen kale arterik kale arte itsaso alderantz. Eta arnagiro ezezagunaren alaitasun osasuntsuz dantzan hasi zen hiriko inurri piloa. Dantzan gizonezkoak eta andrezkoak, taldeka gurutzatuz autobusen eta trenen geltokietan, semaforoetan, merkatuen sarreretan, ikastetxeetan... Dantzan zaharrak eta gazteak, handiak eta txikiak, kaleetan, enparantzetan, lantegietan, diruetxeetan, dendetan, tabernetan, kafetxeetan... Dantzan kamioiak, barkuak, kotxeak, gruak, tornuak, hormigonera, burdina, zementoa, janariak, edariak, jantziak, idazteko makinak, boligrafoak, hitzak...

«Euskara,  
erdara,  
honantza,  
harantza,  
gora, behera  
eskoira, ezkerrera,  
larrosa, arantza,  
Bilboko lanaren dantza.»



Ignacio Zarzales ere dantzan zebilen. Baina ez eguneroko lan nekatsuaren dantzan, ametsez luzaro itxarondako jaiegun handi baten pozezko dantzan baizik.

Asteguna zen izan. Baina besteentzat, gehientzat. Beretzat ez. Ez horixe! Berak jai hartu zuen eta Arana kalean zegoen bere emaztearekin, besperan harturiko patxaranaren gutotxo gozoa sumatuz oraindik korrokadetan.

Hamar t'erdia ziren, ta ikaragarritzko jendetza zegoen kolan. Aurrenengoetarikoak ziren Ignacio eta Miren. Laster zetorren beren txanda. Laster, bai.

—Zu! Mesedez! Nire izena *Segundo* da. Euskaraz nola izango ote da...? *Bigarrena?* Hainbati galdetu diot, baina inork ere ez dit erantzun argirik eman —Ignaciori bere aurrean

zuen jakintsu itxurako gizontxo lodikote koloregorri batek.

—Izen-abizenen zerrenda luzeak egin omen dituzte. Laster erantzungo dizue hor barruan. Ni ere zure antzera...

—Eta *Secundino*...? —atzekaldean zegoen gizon argal luzanga batek.

—*Secundino*...? Ba, ez dakit. Batzuk ba dakizkit, baina denak ez. Ez ta hurrik eman ere. Batzuk, izan ere, oso errazak dira. Beste batzuk, ordea...

—*Bigarrentxoa* edo *Bigarrentxo* edo *Bigarreño* edo horrelakoren bat izango da *Secundino*, ziur aski —gizontxo lodikoteak.

—*Urbano Morcillo Gordo* naiz ni. Nola izango ote da euskaraz? Hor batek lehen zera esan dit: *Hiriko Buzkantz Lodi* dela. Horrela al da? *Hiriko* gustatzen zait. Baina *Buzkantz* baino *Odoloste* edo *Odolki* nahiago nituzke —Ignacioren alboan zegoen tripaundi gazte batek.

—Nire izen-abizenak *Simeona Piernavieja Angulo* dira —besteei emandako erantzunak entzun ondoren, elkarrizketan parte hartu nahirik, andre argal beltzaran urduri batek.

—*Simeona* zera izango da: *Baitxizati* —mutil gazte maltzur adarjotzaile batek.

—*Simeona* ala *Simona* da? *Si meona* bezala *Si mona* ere... —beste norbaitek.

—*Simeona* da, *Si-me-o-na*. Entzun duzu? —andre argalak.

—*Simeona* ez dakit nola izango den. *Piernavieja* bai: *Bernazabar* —gizontxo lodikoteak.

—Ba liteke —gizon argal luzangaren ondo-ko atsotxo batek.

—Bai. Hori argi dagoela esango nuke nik ere —Mirenek, irribarre gozo bat atsotxoari eginez.

—Eta *Angulo* euskalduna da. Hau ez duzu aldatuenik —gizontxo lodikoteak, sasimaisuen ziurtasun sendoz.

—Zer...? —Simeonak.

—*Angulo* aldatu beharrik ez duzula izango, euskalduna baita.

—Euskalduna dela *Angulo*? —Ignaciok, pizka bat harrituta.

—Bai, jauna! *Angulo* euskalduna da, euskaldun euskalduna —gizontxo lodikoteak bere jakituria guztia inguruan isuriz eta guztiak aho zabalik utziz.

—A, bai, jakina! —norbaitek.

—Noski! —beste norbaitek.

—Baina *Angulo* ez da, *Hangulo* baino: *Han*

gu lo, hau da, *Alli nosotros durmiendo* —mutil gazte adarjotzaileak.

—Hurrengoa, mesedez! —barrutik.

Pozaren pozez, dardarka sartu ziren barrura Ignacio ta Miren. Eta hogeitau bederatzia leihatilaren aurrean aurkitu ziren.

Leihatila bakoitzean alfabetoko letra bat zegoen.

Nora ezean gelditu ziren Ignacio ta Miren. Atezain bat hurbiltzen zaie, berehalaxe.

—Nor zara zu?

—Zer?

—Nola duzun izena?

—A, bai. *Ignacio Zarzales Cordero* naiz.

—Haraxe joan behar duzue orduan: Z leihatilara.

—Mila esker!

Esan ta egin, Z leihatilara joaten dira, ta beste senar-emazte gazte batzuren atzean jarri, isil-isilik.

Z leihatilako gizona haserrekorra omen zen, antza. Eztabaidaka ta garrasika ari zen senar-emazte gazteokin. Emaztearen abizen bat zela ta ez zela sortu omen zen, zirudienez, eztabaida.

—...bai, bai, ba dakit. Baina hori ez da horrela. Zuk *Gozoa* dela diozu *Rico*, baina he-

men *Aberatsa* jartzen du, ta ofizialki onarturik ez dagoen abizenik ezin dugu jarri. Ulertzen duzu...?

—Ulertu..., ulertu egiten dut. Baina zer dela ta ez dute *Gozoa* onartu, ba?

—Hori, andratxoa, nik ez dakit.

—Ba, gizontxoa, jakin behar zenuke.

—Niri izen-abizenen zerrenda bat eman ditate, zerrenda bat bakarrik, hauxe, ta zerrenda honi dagokionez jarri behar ditut izen...

—Zerrenda hori nor egin du?

—Nor egin duen...? Egia esateko, ez dakit.

—Ez dakizula?

—Ni zerbitzari bat baino besterik ez naiz. Baina, dena dela, zu ta ni baino jakitunagoak atonduko zutela uste dut, ez?

—Jakitun argiak!!

—Argiak edo ilunak, zoaz heurengana. Galdetu. Ta gero etorri, nahi baldin baduzu. Hemen alperrik ari zara eztabaidaka. Hemen ezin dugu, inola ere, hori erabaki, ta ezin egon naiteke ni ordu betean bakoitzarekin...

—Ordu betean? Urteetan egon gara gu itxaroten. Zer uste zenuen zuk, ba? Eta hain-

beste denboratan itxaroten egon ondoren, ba zatoz hona poz-pozik eta... kaka!, horixe! Lehen baino txarrago bialtzen zaituzte porrakailo babalasto hauek. Baina hau ez da honela geldituko. Ez horixe! Joan behar den lekura joan eta...

—Barka iezadazu, baina... hurrengo, mesedez!

—Zer barka ta marka! Itxaron, geuk ere orain arte itxaron dugu ta! Non bizi dira lehen aipatu dituzun jakitunok?

—Euskaltzaindian galdetu!

—Non dago hori, ba?

—Erribera kalean, 6an.

—Oraintxe noa bertara. Zuzen. Entzungo dituzte entzutekoak laster. Bai horixe! Entzungo dituzte, bai, horixe bai. Goazen, Patxi, hemen, kokolo ahozabal honekin, ez bai dago zeregini. Goazen, ea Euskaltzaindian lortzen dugun hemen lortu ezin izan duguna. Agur! Laster arte!

Ignacio ta Miren beldurkilik hurreratu ziren laihatilara. Beldurkilik eta bildotsak baino otzanago ta apalago, karnetak eta familiako liburua eskuetan zituztelarik. Ezkerreko poltsikotik *Kebedar* paketea atera ta arineketa eta

dardarka zigarro bat eskaini zion Ignaciok laihatilako gizonari.

—Egunon!

—Baita zuei ere.

—Ez, ez. Eskerrik asko. Ba daukat. *Kebedar* gogorregia da niretzat. *Atsegin* erretzen dut.

—Bai, guk ere bai. Baina gaur ez dut erosi, ba. Ez zegoen estankotan. Bestelan...

—Nola duzu izena?

—*Ignacio*. *Ignacio* naiz.

—Ba, begira: Zaharrenetariko ta jatorrenetariko izena *Eneko* duzu. Edo, bestelan, *Eneko* tik eratorria: *Iñigo*. Gure herrian asko erabiliak izan diren *Inazio* edo *Iñaxio* ere hemen dituzu, nahi baldin badituzu. Ta, azkenez: *Iñaki*.

—Bai. Horixe. *Iñaki* aukeratzen dut. Politena ta ezagunena ere horixe da, nire ustez. Erabiliena ere bai, beharbada. Ez? Ba dakizu, honetan batzuk...

—Zein da zure lehenengo abizena.

—*Zarzales*.

—*Zarcillo...*, *Zarza...*, *Zarzalejos...* eta *Zarzales*. Hemen dago. Hara: *Labardi*, *Labardo*, *Labardui*, *Labarraga*, *Labarreta*, *Labartza* eta abar dituzu, alde batetik. Beste alde batetik,

*Sasiaga, Sasidi, Sasidoi, Sasidui, Sasieta, Sasitza* eta abar. Eta gainera *Saparrondo, Zazkardi...*

—Nahikoa da, nahiko. Aukeratu dut.

—Zein?

—*Sasidi*.

—Ederki. *Iñaki Sasidi* orduan.

—Bai.

—Bigarren abizena, mesedez!

—*Cordero*.

—*Cordero, Cordero, Cordero...*, bai, hemen dago. *Abariko* duzu bat, *Arkazte* beste bat, *Arkume* ere bai, eta *Artxo, Axuri, Bekereke, Bildots...*

—*Arkazte* ala *Axuri* hartuko dut, Miren?

—Zeuk nahi duzuna. Biak dira politikak. Baina nik neuk, bietatik bat hartzekotan, *Arkazte* hartuko nuke. *Iñaki Sasidi Axuri...* i gehiegi multzoan. *Iñaki Sasidi Arkazte* egokiago dator belarrirako.

—Bai. Egia da. Ez naiz konturatu. *Arkazte* hartuko dut, ba, ta kito.

—*Arkazte* orduan?

—Bai, *Arkazte*.

—Izenpetu ezazu horri hau, faborez. Baina kontuz, gero!

—Zergatik, jauna?

—Izena ta abizenak oker jarri ez ditzazun. *Iñaki Sasidi* izenpetu behar duzu beti hemendik aurrerantzean.

—Bai, bai. Ba dakit. Eskerrik asko.

—Emazteak ere aldatu nahi al ditu izen-abizenak?

—Bai. Baina lehenengo abizena bakarrik. Ni *Miren Prado Artetxe* naiz, eta *Prado* bakarrik aldatu nahi nuke. Ba dakizu: seme-alaben onerako da. Izan ere *Zarzales Prado* izan dira orain arte, ta nirea aldatu ezik *Sasidi Prado* izango dira, ta egitekotan ondo egin behar direla gauzak eta, aldatu nahi nuke, aldatu ahal bada, behintzat. Zein ipini ere pentsaturik daukat, ez da hain egokia izango, beharbada, baina... *Landa* da nik pentsaturik daukadana, *Prado*-ren ordeez *Landa*. Jatorra ote da? Ba dakizu: guk jatorra dela uste izan arren, huts ere sarritan egiten dugu, eta honelako gauzetan batez ere. Gure Mari Karmenek...

—Ondo dago. Egokia da, bai, *Prado*. Lehengo andre sorgin gogaituak baino hobeto aukeratu duzu zuk.

—Balio du orduan?

—Balioko ez du, ba! Oso ondo dago. Eta polita da gainera.

—Eskerrik asko. Asko poztutzen naiz. Batek ez du zer egin ere jakiten holako orduetan eta...

—Izenpetu, faborez. Hementxe.

—Bai. Oraintxe.

—Beste zerbait ere egin behar dugu? Nire emaztearena...

—Ez, ez. Egitekoa eginda dago.

—Zenbat da biona?

—Euskadiko Agintaritzaren zerbitzu bat da hau. Agur! Ongi izan!

—Eskerrik asko!

—Mila esker!

—Ez da ezergatik. Gu horretarako gaude hemen.

Iñakik eta Mirenek Arana kaletik *Bilbobe-  
rri* parkerantz jo zutenean, eguzki gazte, indar-  
tsu ta irribarretsuz jantzirik zegoen Bilbo. Eta  
parkea kolore liluragarritz.

Parkeko lorategietan mila abesti gozo kantatzen zituzten hango txori alaiak, argitasun eta epeltasunaren atseginetan.

Abeslari ta ameslari, hor doaz, bozkarioaren beteari eutsi ezinik, Iñaki ta Miren ere parkean zehar. Hor doaz eskonberriak bezala, zorionta-

sun udaberritsuz, bihozkadaka, besarka, musu-  
ka...

—Sinestu ere ezin dut egia denik. Hau da poza daukadana! Zuk ez, Miren?

—Nola ez, ba? Ezkondu ginenean ere pozik egon nintzen, baina gaur ere... Ene! Ez al da gure medikua, Don Julian, han doana?

—Non...? A, bai. Bera da. Berbera. Hori ere orain *Don Julian Perales Monteagudo* da baina, laster... *Julen Madarieta Mendizorrotza* jauna izango da.

—Ziur.



## UTOPIAREN UTOPIAN

Lainoetan jaio omen zen Aingeru Hegazti. Lainoetan zehar azkar zihoan abioi baten sabelean. Eta abioian bertan egin omen zituen lehenbiziko ametsetak ere: Abiadorea zen, Sondikako aireportutik mundu guztiko eta ilargiko aireportuetara joaten zen abiadore ospatsua. Abiadorea, astronauta, kosmonauta...

Gurasoek jostailu denda bat zuten, ta han egoten zen Aingeru ere haiei laguntzen. Baina abiadore izan nahi zuen, abiadore. Eta esan ta esan, hegazkintzako ikasketak egitera bialdu zuten azkenean bere gurasoek.

Abioien burrundada ta abiada zituelarik beti buruan, paperezko abioitxoak egiten hasi zen klaseetan. Eta paperezko abioitxoak egiten eman zituen klaserik gehienak. Eta paperezko abioitxoen abiadore egin zen.

Gaur Sondikako aireportuko dendatxo batean dago paperezko ta plastikozko abioitxoak saltzen.

## ITURRI BAT, HARRI BAT, ZUHAITZ BAT

*«Es cosa olvidada por sabida  
que un árbol, una piedra y una fuente  
pueden ser el edén de nuestra vida.»*

(Ramón de Campoamor)

Niretzat politena, ederrena ta maiteena izan zen. Eta ba da orain ere. Eta beti izango da. Nola ez, ba? Hantxe jaio bai nintzen, hantxe hazi ta hezi bai ninduten, hantxe egin bai nintzen gizandre, baserrietako lurraren musikazko arnasa zaharraren haizetan, hirietako zementoa-ren zaratazko arnasa berriaren hautsetan. Ta, jakina: non elikatu, hantxe bertakotu.

Ez. Ez zen beste munduko gauzarik izan Arbasoeta, nire txoko kuttuna. Iturri bat, ha-

rri bat eta zuhaitz bat. Horixe izan zen nire ondasun guztia. Besterik ez.

Nahi ere ez nuen besterik. Zertarako? Gai-  
nezka bai nengoen bizipozez nire paradisu-  
an, gizandre adiskidez inguraturik. Nire iturriño  
xarmangarriaren ondoan, harri zabalean eseri-  
rik, zuhaitz hostotsuaren gerizpetan, hamaika  
egun gogoangarri eman genituen elkarrizketa  
goxoan, lanean, jolasean...!

Egun batean, gogoratu ere nahi ez dudan  
egun izugarri batean, gizandre arrotz ezezagun  
batzuk etorri zitzaizkigun Arbasoetara, zezen la-  
rruz jantzirik eta haginataraino harmaturik.

Lehenengotan, lagun bezala agertu ziren.  
Eta laguntzat hartu nituen. Eta lagun egin gi-  
nen... Baina, ahaztu ere ezin dudan beste egun  
izugarri batean, heuren zela Arbasoeta esan  
zidaten, esan ziguten. Heuren zela...? Baina  
nola izan zitekeen heuren, betidanik neurea,  
neure neurea izanik?

Eztabaidaka hasi ginen. Arrazoi bidez, bai-  
na garrasika. Arrazoiaren indarrez, baina irain-  
ka. Gero, indarraren arrazoiz, burruka. Burru-  
ka bizitan. Gorrotozko ta odolezko burruka bi-  
zitan...

Asko ere asko izan ziren haiak eta, indar  
handia ere handia zuten eta, lagun asko ere as-  
ko zituzten eta, fusil eta kainoi eta abioi eta  
bonba asko ere asko zituzten eta..., gu lau katu  
baino ez ginen eta, esku hutsik geunden eta...,  
galdu egin genuen azkenean. Eta indarraren  
arrazoiz irabazi dutenek arrazoia izaten dutenez  
gero, eta galdu dutenen arrazoiaren indarrak  
ezertarako balio izaten ez duenez gero, Arba-  
soeta berentzat hartu zuten gizandre zapaltzai-  
leok, lapurtu egin zidaten gogorkeriaz.

Betiko lotan zeuden gizandre adiskideen  
oroitzapen mailukariz negar iturri bihurtu zi-  
tzaizkidan begiak menpekariaren itzal larri-  
tan... Baina, urteak joan eta urteak etorri, den-  
boraren joate etengabeak dena baretzen du ta,  
haserreak eta amorruek leunduz, arinduz, goza-  
tuz zihozten. Eta, Urriko hegoaizaren itxaro-  
pen epelaren bultzadaz, apalkiro ta bigunkiro,  
Arbasoetako sasiagintariongana hurreratu nin-  
tzen nire garbitasunekin, nire eskubideekin, ni-  
re gizandretasunarekin, eta neurea zela betida-  
nik Arbasoeta eta neuri emateko eskatu nien  
begirunez behin eta berriz. Hala ere, esanak  
esan ta eginak egin, alperrik izan zen. Bozketa  
jator baten itxurazko zerbait egin zuten Arba-

soetaren jabetza erabakitzeke. Baina asko ere asko izan ziren eta...

Orduan, nire Arbasoetaren ondotik nora ezean nindoalarik, eguzkia, eguneroko lanaren izerditan, lainopetan negartu zen. Haize hozkiri-riarian otoitz larri ta sakonen murmurioa entzun zen. Trumoian metraileta hotsaren garrasi odol-dua. Ni, gizandre gaixo hau, ipuin garratz hau idazten hasi nintzen bakarrizketako marmarrean: «Arbasoeta horiek darabilte, baina neurea da. Erabili horiek darabilte, baina neurea da. Arbasoeta neurea da. Neure neurea» .

ETA...

... besterik ez. Horixe izan zen dena: Herriak herri izan nahi zuela. Besterik ez. Horixe da dena: Herriak herri izan nahi duela. Bere izzatea izanez zaindu ta endakatzen ez den herria herri izaten baita beti.

Herriak bera izan nahi zuen, izan nahi du, bera, bere betiko herritasun oso betean. Bera izan berean.

Erlearen antzera, askatasunez bizi nahi izan zuen, bizi nahi izan du, bizi nahi du, mendi tar-teko haize garbitan lorerik lore hegan joan, ez-tia egin, jolastu... Baina ez zioten, ez diote, herri izaten uzten. Nork? Betikoek, hauzokoek.

Arranoak indarkeriaz bere hatzaparpetan duen erlea bezala zegoen, dago, herria, estu ta larri, arnasoska, garraisika, ito aginean, bere arrazoi osoa negarrez eta zotinka adieraziz. Bai-

na ez zioten, ez diote, jaramonik egiten. Eta ez-tenkadaka hasi zen, ari da...

*... eta arrazoiaren indar zuzena  
indarraren arrazoi makurrez  
okertu zutelako, dutelako,  
eta arrazoiaren indar mailukaria  
indarraren arrazoi mutuz  
isildu zutelako, dutelako,  
eta arrazoiaren indar distiratsua  
indarraren arrazoi beltzez  
ilundu zutelako, dutelako,  
eta arrazoiaren indar bizia  
indarraren arrazoi hilgarriz  
hil zutelako, dutelako,  
indarraren arrazoi desgizatua  
amorru leherkorrez karrikan zehar,  
arrazoiaren indar deuseztatuaren  
hilobiko fenixaren odol hautsetan.*

## TXANTXANGORRIA BEZALA

Gure  
etxe  
osteko  
sasiarte  
luze  
harro  
lakarrean  
dagoen  
txantxangorria  
bezala  
ari  
naiz  
kukuaren  
begirapen  
zorrotzaren  
oinazez

kantuka  
txantxangorria  
bezala  
hasperenen  
txioa  
haizeratzen  
haizetan  
datozen  
lehen  
urri  
kezkatu  
negartiaren  
oihartzun  
ahulen  
laztanez  
orain  
larriaren  
adar  
mehetan  
zintzilik  
kukuaren  
arrautzakeriaren  
menpean  
haren  
eta  
nire

arrautzak  
zaintzen  
berotzen  
txitatzen  
lehenaren  
arrautzetatik  
sorturiko  
orainaren  
arrautzetan  
izankizun  
dagoen  
kukurik  
gabeko  
geroaren  
arrautzasun  
berriaren  
etengabeko  
itxaropenez.

## MUNDUKO POEMARIK ONENA

Gazterik hasi zen. Ametsez beterik eta gogotsu hasi ere. Poema bat egin behar zuela ta hasi zen. Munduko poemarik onena euskaraz! Munduko poemarik onena Euskal Herrian! Harrigarria ta pozgarria benetan! Asmatzeko ere horrelakorik!

Homero, Virgilio, Dante, Camoens, Orixe ta parnasoko gainerako guztiak ez ziren ezer izango berak egingo zuen poemaren parean. Ez horixe! Bere poema izango zen onena, miragarriena, hilezkorrena.

Horretarako, behar beharrezkoa zen, lehenengo ta behin, planifikapen zuzen bat. Noski.

Zein izen jarri poemari? Zein gai aukeratu? Zein egitura erabili? Zein adierazpide...?

Izena, jakina, izena lehenbizi. *Iliada* edo

*Eneida* edo *Os Lusíadas* bezalakoxe izen egoki bat. Ozentasuna duen izena. Eta nabarmen samarra, baina ez arraroegia. Izen iradokorra, lilurakorra eta ulerkorra. Baina zein? *Euskadi?* Ala *Euskadi?* Ez, ez bata ez bestea, ortografia dela ta eztabaida sortuko bai litzateke. Politika kutsua du gainera. *Euskalerrria?* Ala *Euskal Herria?* Egokia da izan izen hau. Baina ez. Izen horri buruz ere, ortografia dela ta ez dela... Ez, izen egokiago bat asmatu behar dut. *Euskaldunak?* Orixek erabilia da bere poeman. *Euskalduneria?* Arruntegia litzateke. Gainera *euskaldun eria* edo *euskaldun erbia* uler daiteke entzuterakoan. Ez, ez. Inola ere ez hori. Eta *Azkazia* jarriko banu? Baina *azkazia* esaten zaio *arkazia*-ri ere leku batzutan, ta zuhaitz baten izena delakotan egongo litzateke bat baino gehiago. *Endaren hatsa?* Egokia. Baina arkaikoezia ta tronpagarria, *hatsa* usain txarra ere baita. *Iraupen dantzariaren abesti gorria?* Luzeegia ta poetikoezia. Orijinala ba da izan, baina ez, ez, hori ere ez. *Gure herritxo maitearen edestia?* Fraile usaina du. Zerak bere poema entzutetsuaren... Ez, ez, itzulpenik ez. Kopiaketarik ere ez. Egon pizka batean! Egongo da hor, ziur, beste izen egokiagoren bat... Ene! *Izen ta izan-*

ekin hitz joko bat eginik *Izenaren izana* jarriez gero zer? Edo *Izanaren izena* bestela. Edo hobeki, beharbada, *Izena ta izana?* Abstraktoegiak dira poemarik onenaren izenburutzat jartzeko. Eta zergatik ez *epopeia* hitza erabili? Ez, ez. Gramatika gogoratzen dit hitz horrek. Garrantzi handia du izenak eta ondo pentsatu ondoren jarri behar da. Hain zuzen ere...

Gazterik hasi zen munduko poemarik ederrera asmatzen, poemarik ederrenaren izena asmatzen, izena asmatzen, izena asmatzen...

Zaharrik hil zen gizajoa! Zaharrik hil zen lehenengo ahapaldia ere egin gabe.



## UTOPIAREN ZAPALGAILUZ

Alde egin dut, alde,  
mundu guztiko gizonen arteko  
beste gerrate izugarri baten presentimenduz.  
Alde egin dut, alde,  
utopiaren zapalgailuz,  
eta Mariren,  
basajaunen,  
iratxoen,  
lamien  
eta sorginen  
ipuinetako irudi bidez  
Euskal Herri zaharrera heldu naiz.  
Greziaren pentsamendua,  
Erromaren erakuntza  
ta Konstantinoren Eliza  
zapaldu ondoren heldu naiz.

Zibilizazio teknikoaren  
jabe ta jopu den  
Okzidenteko  
indibidualismoa,  
dualismoa,  
arrazionalismoa,  
kontzeptualismoa,  
kapitalismoa,  
kolonialismoa,  
materialismoa,  
kontsumismoa  
zapaldu ondoren heldu naiz.  
Ameriketako indioen genozidioa,  
Afrikako beltzen salerosketa,  
Gernikako hilketa  
ta nire bihotzean horzkari ditudan  
beste mila ekintza ezgizakor  
oihuka salatu  
ta diruaren,  
harmen,  
aginpidearen,  
kutsaduraren,  
drogaren,  
zementoaren  
ta publizitatearen  
deabruzko liturgia madarikatu hiltzailea

zapaldu ondoren heldu naiz.  
Okzidentek lau mendetan  
apurtu ta aldrebestu duen mundua  
zapaldu ondoren heldu naiz.  
Eta lehenagoko  
israeldarrak,  
indioak,  
hinduak,  
arabeak,  
txinoak,  
bantuak...,  
aurkitu ditut  
euskaldun zaharrekin  
izadiaren sinfonia koloretsua  
entzuten,  
dantzatzen,  
birsortzen.  
Eta geroko mundu berria  
lehenean ikusi dut  
ernetzen,  
hazten,  
loratzen,  
gizagintzaren  
ahaleginaren  
bozkariotan.

## EUSKAL LITERATURAREN UTOPIAN

Kaiolan dagoen txoriño bat da gure literatura.

Ken hadi nire ondotik, ezkortasun madarikatua!

Gure Herria bezala, bere izate osoan bera izan nahirik kaiolan dagoen txori destxoritua da gure literatura.

Beste txori askoren antzera, askatasunezko haize gozotan **bizi nahi luke** kantari, txoririk ederrena izan, udaberriro kabia epeletan txorikume berriak sortu... Baina kaiolan dagoen kurloi bat da.

Ken hadi nire ondotik, ezkortasun zital madarikatu hori!

Urretxindor, kanario edo kardantxilo izan nahi lukeen kurloi zabarra da gure literatura,

mudaldi bakoitzean gaztetzen eta berritzen den kurloi zahar betikoa... Betikoa? Behin eta berri-  
riz bere hautsetatik pizten den fenixa? Betiko fenixa?

Suntsi hadi, ezkortasun zital higuingarri ma-  
darikatu hori!

Etxepareren egunsentiko utopian sortu zen  
gure literatura.

*Aintzinako mende hilen ezina  
ezerezen buts hotzean ilun,  
odolgorri baten iraupen grina  
Eiheralarreko herrian itun.*

*Iraupen grinaren abalegina  
etorriaren bultz berrian baurdun,  
leben emaitzaren dei irrintzina  
egunsentiko poz argitan txukun.*

*Dei irrintzinaren muin ozendura  
eztizko xiztadaz zazpi haizetan,  
sormenaren barne eragindura*

*erdiminez hegats urdurietan,  
eta munduz mundu dantzan plazetan  
gure Euskal Herriko literatura.*

Lizardiren udaberriko utopian birjaio zen  
gure euskal fenix ttipia, fenix harrigarri ta zo-  
ragarria. Sabel emankorraren erdimin kantuz  
birjaio zen, kale hizkuntzaren gurari biziz, mai-  
teminduen etorri, lore ta ametsez,

*«Ez adi beldur, nere Maiteder;  
baserriz landa nai aunat ager-  
arazi, bazterrik bazter,  
arroki; expaitun ezer  
lurbiran ederrik i bezain eder!»*

Hau kantuaren lilura eroa utopiaren balet  
xarmangarrian! Oroitzapenezko lorategiak uni-  
bertsitatera narama utopiaren zoroan. Eta

*Unibertsitate zaharreko zemento erdaldundua  
arrakalatu egin da gazteria berriaren garraisiz  
kutsadura grisaren barne eztanda irakinean.*

*Lur zapalduaren hasperen gorria,  
lebenaren izerdiz bustiriko lurraren hasperen  
[itoa,  
baserritarren lotsa ta beldurrez isilduriko lurra-  
[ren hasperen mutua,  
lur euskaldun emankorraren hasperen bila...*

*barrigarrero berpiztu da  
arrakalen arnasaz  
zemento gogor lakarra leher nabirik.*

*Unibertsitate berriko lur euskaldundua  
udaberriko bizi ta edertasunez  
nire ametsaren itxaropenezko atseginetan.*

Hau horditasunaren zorabioa baikortasunaren zurrunbiloan! Baikortasunak narama geroaren ikuskizun hegadan. Hau ezinaren eginaren ezusteko bozkarioaren gainezkadura! Hau etorriaren iturria! Baikortasunak narama ameslari ta abeslari.

*Neguko mende buts hotzen iraun gogo kaiola-  
[tua  
printz larrizko hasperenez zetzan ilunaren ira-  
[kiduran...*

*Unibertsitateko eguzki utopikoaren abalegin zo-  
[liak  
urratu egin du kurloi zabarraren udaberriko  
[plazenta,  
ta lehenaren txinta zabar itoaren negar izoxtua  
txorrotxio alaiz lehertu da egunsentiaren suka-  
[rrean,*

*ta erdal unibertsitateen harridura nabarmenez  
laino gorri, zuri ta berdetan doa dantzari  
euskal urretxindor fenixtuaren kantu kolore-  
[tsua  
geroaren geroa oraingo oparotasunez betikotuz.*

## AURKIBIDEA

UTOPIA BAT ... ..	7
UTOPIAREN FANTASIAN ... ..	11
UTOPIAREN ERAGINA ... ..	17
1979: HAURRAREN URTEA ... ..	19
GABONETAKO FANTASIA ... ..	21
«UMEEN ZENTZUNA...» ... ..	25
TELEBISTA ARROTZA PUSKATZEN	33
ZEMENTO TA BURDINA ARTEAN	
LORE BAT IRRIBARREZ ... ..	35
HIRI BERRIKO UTOPIA GARRA-	
TZEZ ... ..	41
DEITUREN UTOPIAREN MINDU-	
RAN... ..	43
UTOPIAREN UTOPIAN ... ..	63
ITURRI BAT, HARRI BAT, ZUHAITZ	
BAT ... ..	65
ETA... ..	69
TXATXANGORRIA BEZALA ... ..	71
MUNDUKO POEMARIK ONENA ...	75
UTOPIAREN ZAPALGAILUZ ... ..	79
EUSKAL LITERATURAREN UTO-	
PIAN ... ..	83

LAG. YRU-IMASTEGIA	
BIBLIOTEKA - DERIO	
Sarr	43.987/87
Gaia.	
Tokia.	